

ZERBITZUAK ETA LAGUNTZAK ESKURATZEKO ORIENTAZIOA ETA INFORMAZIOA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Gizarte-bazterketa egoeran dagoen pertsona > Zerbitzuei buruzko informazioa eta orientazioa, eta zerbitzu horiek nola eskuratu

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Herritar guztiak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Ez dago aldez aurreko baldintzarik.

Zertan datza?

Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua da gizarte-prestazioak eta -zerbitzuak jasotzeko gunea ([1.1 fitxa](#)). Helburu nagusia da erabiltzaileei gizarte zerbitzuei buruzko informazio egokia ematea eta, hala badagokio, arreta emateko beste sistema edo politika batzuetako baliabideetara bideratzea. Horretarako:

- gizarte-zerbitzu eta -prestazioen berri ematen dio pertsonari,
- beharren hasierako balorazioa egiten du,
- pertsona prestazio eta zerbitzu egokienetara bideratzen du, bere beharrei erantzuteko, Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) eginez,
- zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko izapideak egin eta koordinatzen ditu.

Norentzat?

Zerbitzua **herritar guztiei zuzenduta** dago.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

- Informazio, balorazio eta orientazio-zerbitzura sartzeko ez dago aldez aurreko baldintzarik.
- Diagnostikoa eta Arreta Pertsonalizatuko Plana egiteko, beharrezkoa da balorazio zehatz bat.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)